

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Harian](#)


2008-12-02

Torturatzea «zailago» egin duen 30 urteko bidea jaso dute liburu batean

Xabier Makazagak idatzi du 'La red. El tormento en la España Constitucional' liburua; Bruselan bizi da bera, torturen beldur delako

Torturak gero eta ibilbide motzagoa duela adierazi dute aurkezpenean bildutakoek

OIHANA ELDUAIEN

Donostia

- «Inkomunikazioarekin jarraituko dute, baina grabazio gabe? Luzaz ez»
- Liburua, idazlearen hitzetan

Eva Forest torturaren kontrako borrokalaria zena eta Mikel Laboa atzo hildako musikari eta kantaria gogoan zirela aurkeztu zuten atzo, Dokan, Donostiako kafe antzokian, *La Red. El tormento en la España Constitucional* liburua (Sarea. Espainia Konstituzionaleko oinazea). 1977an presoak kalera atera zituztenetik orain arte torturak izan duen bilakaera jaso du

Xabier Makazaga Bruselan bizi den zarauztarrak. Torturaren Aurkako Taldearekin (TAT) elkarlanean egin du liburua, eta Txalapaterekin argitaratu du. Torturen beldur izanik, «borroka hori irabazi arto» Euskal Herrira itzultzoko asmorik ez du Makazagak; hala, bada, Dokan bideo konferentzia bitartez aurkeztu zuen Makazagak liburua. Torturaren kontrako borroka batzuk irabazi direla azpimarratu zuen, eta Eva Foresten adibideari jarraituz, laster «gudaldiak ez ezik, gerra ere irabaziko» dela dio.

Makazagak ez ezik, ekitaldian parte hartu zuten guztiek ere itxaropen mezu eman zuten. Dokako bozgorailuetatik Mikel Laboaren musika entzun zen hasi aurretik eta amaitu ondoren. Ekitaldira ere haren hitzak eraman zituen Mikel Soto Txalapatarko editoreak, bera ere torturatu izandakoa: «Mikel Laboak esaten zuen bezala 'gu oroimena gara, ala ia ez gara ezer'. Pentsatu nahi dugu, hori baino gehiago garelako [torturatuak], eta Xabierrek egin digun opari honek, izena emateaz gain, izana ere ematen digu. Itxaropena ematen digu aurrera egiten jarraitzeko, eta oroimenean baino askoz gehiago izateko».

Liburuan jasotzen diren istorio guztiak ezagunak direla onartu zuen, «minaren ozeano ikaragarria» ezaguna delako. Baina jakinekoak izan arren, haiek ahaztu egiten direla nabarmendu zuen, eta horiek guztiak biltzea garrantzitsutzat jo zuen. Oraindik tortura ezinezkoa ez den arren, urte luzeetan egindako lanaren ostean gero eta ibilbide zailagoa duela nabarmendu zuen.

Eva Forest zenari eskaini zion liburua Makazagak, eta Forest bera ere Dokara eraman zuten atzo. TATen batzar batean egin zuen hitzaldia jasotzen duen bideoa eman zuten. Torturak torturatuak indartsuago egiten dituela azpimarratu zuen Forestek, eta «estatuaren indarkeriaren adierazpen txiki bat besterik ez den torturaren» kontra egiteko herri mugimenduan parte hartu behar dela azpimarratu. «Torturaren froga bizia gara».

Forestek hitz horiek egin zituen batzarrean bezala, hainbat torturatu batu ziren Dokako ekitaldian ere. Haien artean Unai Romano, Jose Antonio Torre Altonaga *Medius* eta Abelin Linazasoro. Torturen ondorioz hildakoen senitartekoak ere baziren; adibidez, Maite Golmaio, Xabier Kalparsoro zenaren ama.

«Asko sufritu duen» herri baten adibide dira haiek, Juan Karlos Ioldi TATEko kideak nabarmendu zuenez: «Euskal Herriaren kontra erabilitako errepresioa jasan duzue». Baina torturarena «gai gordina eta latza» izan arren itxaropenari tarte egin behar zaiola nabarmendu zuen. Ezker abertzaleko mobilizazioetan hainbeste entzuten den lelo bati buelta eman zion Ioldik. «Borroka da bide bakarra» leloarekin ez dago ados, bere iritzian bidea bera baita borroka. Gailurrera iristeko bidea argi jakin behar dela gogora ekarri, eta bi zutabe ezinbestekoak direla esan zuen: «Itxaropena eta ausardia».

Datozen belaunaldiei «beste etorkizun bat eskaini behar diegulako», bide hori egitearen garrantzia azpimarratu zuen Ioldik. «Gure erantzukizuna da».

Urtxintzak, Alfonso eta Eva

Etorkizuneko belaunaldien bi ordezkari ere hartu zuten parte ekitaldian: Xabier Alegria presoaren alaba Garazi Alegriak eta Ioldiren beraren seme Unai Ioldik. Joxemiel Azurmendik idatzitako ipuina irakurri zuten bien artean. Baso bat zen eskenatokia, eta zuhaitzak botatzera joandako izakien beldur ziren urtxintzek, txepetxek eta mota zein kolore askotako basoko izakiek, Eva, Alfonso, Txanogorritxu, David eta beste batzuen laguntza jaso zuten. Denak bat eginda antolatu ziren, eta makinak bidaltzea lortu zuten.